

ORGANOA:	Udalbatzar Txit Garaia
ÓRGANO:	Excmo. Ayuntamiento Pleno
BATZARRALDIA:	Ohiz kanpoko.
SESIÓN:	Extraordinaria.
TOKIA:	Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
LUGAR:	Salón de Plenos de la Casa Consistorial
EGUNA:	2015eko urriak 27
FECHA:	27 de octubre de 2015
HASIERA ORDUA:	10:00
HORA DE COMIENZO:	10:00
LEHENDAKARIA:	Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Alkatea.
PRESIDE:	Don Eneko Goia Laso, Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.
ETORRITAKOAK:	Alkateorde jaun-andreak:
ASISTEN:	Los/las señores/as Tenientes de Alcalde: Don Ernesto José Gasco Gonzalo jauna Doña Miren Azkarate Villar andrea Doña Duñike Agirrezabalaga Ugarte andrea Don Juan Ramón Viles Mitxelena jauna Eta ondorengo zinegotzi jaun-andreak: Y los/las señores/as concejales/as: Doña Pilar Arana Pérez andrea Don Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga jauna Doña Aitziber San Román Abete andrea Don Martín Ibabe Eceiza jauna Doña María Jesús Celaya Egiguren andrea Don Jon Insausti Maisterrena jauna Don Enrique José Ramos Vispo jauna Don Miguel Ángel Díez Bustos jauna

Doña María Luisa del Pilar García Gurruchaga andrea
Don Alfonso Gurpegui Ruiz jauna
Doña Miren Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andrea
Don Josu Mirena Ruiz Martín jauna
Doña Naiara Sampedro Pérez andrea
Don Axier Jaka Goikoetxea jauna
Doña Olaia Duarte López andrea
Don Ricardo Burutarán Ferré jauna
Doña Miren Albistur Garmendia andrea
Don José María Murguiondo Casal jauna
Doña Amaia Martín Garín andrea
Don Loïc Alejandro jauna

EZ DA ETORRI: Ondorengo zinegotzi jauna:

NO ASISTE: El señor concejal:

Don José Luis Arrúe Pintó jauna

IDAZKARIA: Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Udalbatzarreko idazkari nagusia.

SECRETARIO: Don Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Secretario General del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.

KONTU-HARTZAILEA: Julian Ortiz Arruabarrena jauna, Udal Kontuhartzaile Nagusia.

INTERVENTOR: Don Julián Ortiz Arruabarrena, Interventor General Municipal.

LABURPENA	Zk N°	SUMARIO	Pág Orr.
Politika orokorrari buruzko adierazpena.	1	Declaración anual de política general.	3

DONOSTIAKO UDALBATZAR TXIT
GARAIAREN OSOKO BILKURA EZ OHIKOA
HASITAKOTZAT JOTZEN DA.

SE DECLARA ABIERTA LA SESIÓN PLENARIA
EXTRAORDINARIA DEL EXCMO.
AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA/SAN
SEBASTIÁN.

1. **Politika Orokorrari buruzko urteko adierazpena.**

1. **Declaración anual de política general.**

Alkate-Udalburuak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

ATSEDENALDIA

RECESO

11:10ean, 15 minutuko atsedenaldea egiten da eta berriro ere ekiten zaio saioari, 11:25ak direnean.

Siendo las 11:10, se suspende la sesión por 15 minutos y se reanuda la misma, siendo las 11:25h.

Eztabaida hasita, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Azkarate Villar andreak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/as señores/as D. Ernesto Gasco Gonzalo, D^a. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D^a. Miren Albistur Garmendia, D^a. Amaia Martín Garín, D^a. Miren Azkarate Villar y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

ATSEDENALDIA

14:17an atsedenaldia egiten da eta berriro ere ekiten zaio saioari, 17:30ak direnean.

RECESO

Siendo las 14:17 se suspende la segunda parte de la sesión y se reanuda la misma, siendo las 17:30 h.

TALDEEK

AURKEZTUTAKO

DEBATE SOBRE LAS PROPUESTAS

PROPOSAMENEN INGURUKO EZTABAIDA.

PRESENTADAS POR LOS PARTIDOS.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Miren Azkarate Villar andreak, Alkate-Udalburuak eta Idazkari jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/as señores/as D^a. Amaia Martín Garín, D^a. Miren Albistur Garmendia, D^a. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Ernesto Gasco Gonzalo, D^a. Miren Azkarate Villar, Alcalde-Presidente y Secretario, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

1. Proposamena, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, gizarte, ekonomia, energia, teknologia eta elikadura arloetako iraunkortasunari buruzkoa.

1. Propuesta de Resolución presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA relativa a la sostenibilidad social, económica, energética , tecnológica y alimentaria de la ciudad.

“Donostia, 2015eko urriaren 27a

“Donostia, a 27 de Octubre 2015

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

A LA SECRETARIA GENERAL DEL PLENO

GIZARTE, EKONOMIA, ENERGIA, TEKNOLOGIA ETA ELIKADURA ARLOETAKO IRAUNKORTASUNARI BURUZKO EBAZPEN PROPOSAMENA

PROPOSICION DE RESOLUCION SOBRE SOSTENIBILIDAD SOCIAL, ECONÓMICA, ENERGÉTICA, TECNOLÓGICA Y ALIMENTARIA DE LA CIUDAD

IRABAZI DONOSTIA taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udaltzaren Araudi Organikoaren 55. artikulua oinarri, EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkezten du, GIZARTE, EKONOMIA, ENERGIA, TEKNOLOGIA ETA ELIKADURA ARLOETAKO IRAUNKORTASUNARI buruz, Udaltzatan azter dadin.

Amaia Martin Garin, Portavoz del grupo IRABAZI DONOSTIA, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLÍTICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, relativa a LA SOSTENIBILIDAD SOCIAL, ECONÓMICA, ENERGÉTICA, TECNOLÓGICA Y ALIMENTARIA DE LA CIUDAD.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Klima aldaketaren aurkako borroka, ingurumen iraunkortasuna eta eraginkortasun energetikoa kezka gero eta handiagoak dira herritarren artean, eta erakundeek kezka ere izan beharko lukete horregatik. Horixe uzten dute agerian Donostiako Udalak izenpetutako instituzio konpromiso guztietan ezarrita dauden helburu energetikoen: Udalsarea 21, Tokiko Agenda 21en TAK21 2012 Saria, Aalborgeko Gutuna, eta guztietan garrantzitsuena dena: Alkateen Ituna, Tokiko Energia Iraunkor baten aldeko Konpromisoa.

La lucha contra el cambio climático, la sostenibilidad, y la eficiencia energética son preocupaciones cada vez mayores de la ciudadanía y por lo tanto, deberían serlo de las instituciones. Los objetivos energéticos locales establecidos en todos los compromisos institucionales firmados por el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastian así lo demuestran: Udalsarea 21, Premio TAK21 2012 de la Agenda 21 Local, Carta de Aalborg, y el de mayor trascendencia, el Pacto de Alcaldes y Alcaldesas, Compromiso para una Energía Sostenible Local.

Euskal Herriaren faktura energetiko osoa 9.000 milioi €/urte-koa da, eta konparazio modura, Euskal Herriko osasun publikoaren kostua 3.500 milioi €/urte-koa da.

La factura energética global para el conjunto de Euskal Herria asciende a 9.000 millones de € al año. A título comparativo el coste de la salud pública en Euskal Herria asciende a 3.500 millones de € al año.

Europari erreparatur gero, "aitzindari berde" izaten jarraitzeak aukera emango lioke Europar Batasunari: 25.000 milioi

A nivel europeo, seguir siendo un 'líder verde' permitiría a la UE generar exportaciones por un valor adicional de 25.000 millones de € al año, reducir la factura energética en hasta 350.000

€/urte-ko esportazioak izateko; faktura energetikoa 350.000 milioi €/urte-ra murrizteko 2050erako; inportatutako energiarekiko mendekotasuna eta prezio hegakorretan erositako baliabideak murrizteko; eta hornidura segurtasuna bultzatzeko.

Datu horiek Donostiaren maila geografikora ekarriz, enplegu berdeek esportazioak areagotuko lituzkete, ia 10 milioi €/urte-ko balio gehigarriaz, eta faktura energetiko globala murriztuko litzateke (enpresak, banakoak, erakundeak...), 125 milioi €/urte 2050. urterako.

Eraginkortasuna handitzea, behar materialak murriztea eta pertsonen garapen emozional eta materialerako espazioak sortzea ezinbesteko baliabideak dira donostiarren bizitza duinerako.

Bizitza duina lortzeko, beharrezkoa da:

- Sistema kapitalistaren finantza eta moneta krisien aurka borrokatzea.
- Dirura eta kreditura heltzeko aukera bermatzea desmonetizatutako kolektiboei.
- Auzo antolakuntza eta tokiko komunitateen egituraketa indartzea.
- Elkartasun ekonomia bultzatzea.
- Aberastasunak tokiko esparrutik ihes egitea saihestea.

Hori dela-eta, Irabazi Donostia taldeak Ebazpen Proposamen hau aurkezten du, Udaltzatzen azter dadin:

millones de € al año para 2050, reducir nuestra dependencia de la energía importada y los recursos adquiridos a precios volátiles, e impulsar la seguridad de suministro.

Extrapolando esos datos al nivel del marco geográfico de Donostia, los empleos verdes podrían generar exportaciones por un valor adicional de casi 10 millones de € al año y reducir la factura energética global (empresas, individuos, instituciones, ...) en hasta 125 millones de € al año para 2050.

Aumentar la eficiencia, reducir las necesidades materiales y dotarse de espacios para el desarrollo emocional y material de las personas son herramientas indispensables para proporcionar una vida digna a los y las donostiaras.

En la búsqueda por conseguir una vida digna es necesario:

- Combatir las crisis financieras y monetarias del sistema capitalista.
- Generar acceso a la moneda y al crédito a las comunidades desmonetizadas.
- Fomentar los contactos vecinales y la vertebración de las comunidades locales.
- Fomentar la economía de solidaridad.
- Evitar que la riqueza abandone el ámbito local.

Es por lo que el Grupo Municipal Irabazi Donostia presenta para ser debatida en el Pleno la siguiente

EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Udalbatzak Tokiko Gobernuari eskatzen dio legealdirako plan bat egiteko, tokiko energia eta energia berriztagarriak sortzeko aukera teknikoak aztertuko dituen. Planaren helburua izango da hiriaren buruaskitasun energetikoa areagotzea.

2. Udalbatzak bere gain hartzen du hirian baratzeetarako eremua bilatzeko konpromisoa, Aldundiarekin elkarlanean, eskola jangelak, ospitaleak, adindunen egoitzak, eguneko zentroak... hornituko dituzten hiri baratzeak sortzeko. Gainera, Udalbatzak bere gain hartzen du herritarrentzako hiri baratzeen programa garatzeko konpromisoa, auzoetan programa horretarako leku egokiak aurkitzeko.

3. Udalbatzak konpromisoa hartzen du lehenasuna emateko soilik energia berriztagarriak merkaturatzen dituzten kooperatibei hornidura elektrikoaren baldintza pleguetan.

4. Udalbatzak uko egiten dio errausketa hondakinak ezabatzeko metodo gisa erabiltzeari.

5. Udalbatzak Tokiko Gobernuari eskatzen dio martxan jartzeko hondakinen gaikako bilketarako neurriak, bilketa % 70era irits dadin legealdi honetan.

6. Udalbatzak Tokiko Gobernuari eskatzen dio enplegua sortuko duten espazioak sortzeko, materialen konponketan eta berrerabileran oinarrituta, haien bizitza baliagarria luzatu eta bigarren erabilera bat emateko, ahalik eta material gutxien pilatu

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Local a que elabore un plan para la legislatura que explore e implemente opciones técnicas de generación de energía local y renovables. Ese plan tendrá como objetivo la continua mejora de la autosuficiencia energética de la ciudad.

2. El Ayuntamiento Pleno se compromete a buscar espacios cultivables en Donostia en colaboración con Diputación para crear huertas urbanas que puedan abastecer a comedores escolares, hospitales, residencias de personas mayores, centros de día, ... de su entorno inmediato. Además, el Ayuntamiento Pleno se compromete a desarrollar el programa de huertas urbanas para particulares con el fin de encontrar espacios repartidos en los barrios.

3. El Ayuntamiento Pleno se compromete a que en los pliegos de condiciones del abastecimiento del suministro eléctrico se priorice a las cooperativas que comercializan solo energías renovables.

4. El Ayuntamiento Pleno rechaza la incineración de los residuos como método de eliminación de los mismos.

5. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Local a que ponga en marcha medidas para que la recogida selectiva de residuos urbanos llegue a un 70% a lo largo de la legislatura.

6. El Ayuntamiento Pleno se compromete a habilitar espacios para la creación de empleo en torno a la reparación y reutilización para ampliar la vida útil de los materiales, dándoles una segunda utilización para evitar que acaben en los contenedores.

dadin edukiontzietan.

7. Udaltzako Tokiko Gobernuari eskatzen dio bizikletaren erabilerari lotutako zerbitzuak garatzeko:

- Bidegorri kilometroak areagotzea.
- Bidegorriak zabaltzea, gurditxoak eraman ahal izateko bizikletari lotuak.
- Aparkaleku seguruak eta estaliak eraikitzea.
- Bizikletari lotutako intermodalitatea garatzea: bizikletentzako aparkalekuak tren, autobus eta metro geltokietan, autobus geltoki garrantzitsuetan eta lan eremu nagusietan.
- Gune publikoetan dutxak instalatu eta erabiltzeko aukerak aztertzea, ibilbide luzeetan ere bizikletaren erabilera areagotzeko.
- Bizikleta publikoen geltokiak areagotzea.

8. Udaltzako Tokiko Gobernuari eskatzen dio beharrezko neurriak hartzeko Donostiako ikastetxeak Europako Batzordeak laguntzen duen EURONET 50/50 MAX proiektuan sartzeko, Alemaniako Hanburgo hirian 1994an egin zen esperientzia batetik sortutakoa. 50/50 kontzeptua honako honetan datza: energia aurrezteko neurri teknikoak eta metodologikoak proposatzen zaizkie ikastetxeei, eta neurri horien bidez murrizten den kontsumoari esker, %50 ikastetxeari itzultzen zaio dirutan. Gainerako % 50a aurrezpen ekonomiko garbia da fakturak ordaintzen dituen administrazioarentzat. Metodologia honen egutegiari esker, areagotuz doa urtez urte planarekin bat egiten duten ikastetxeen

7. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Local a que desarrolle los servicios alrededor del uso de la bicicleta:

- Aumento de kilómetros de bidegorris
- Ensanchamiento de los bidegorris con el fin de poder circular con carros anclados a las bicis
- Desarrollo de zonas de aparcamiento seguras y cubiertas
- Desarrollo de la intermodalidad de interacción con las bicicletas: aparcabici en las estaciones de tren y bus, en las salidas de metro, en las paradas de bus más relevantes, en las zonas de trabajo
- Posibilitar la utilización y habilitación de duchas en los espacios públicos para fomentar el uso de la bici para largos recorridos.
- Aumento del número de estaciones de bicis públicas

8. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Local a que desarrolle la incorporación de los centros educativos de Donostia / San Sebastian al proyecto apoyado por la Comisión Europea EURONET 50/50 MAX, basado en una experiencia nacida en la ciudad alemana de Hamburgo en 1994. El concepto 50/50 consiste en proponer a los centros educativos medidas técnicas y metodológicas de ahorro de energía. De los ahorros conseguidos por la reducción de consumo a través de los cambios de hábitos y de las medidas de eficiencia energética puestas en práctica por los centros, 50% son devueltos al centro educativo en efectivo. El 50% restante se traduce en un ahorro económico neto para la administración que paga las facturas. Esa metodología dará lugar a un calendario para que el número de centros escolares integrados en

kopurua, 2020rako denak planaren barruan egoteko helburuarekin. Era berean, Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio proiektuan lagundu dezala, haren hedapenean eta finantzaketan.

ese plan vaya creciendo gradualmente año tras año con el objetivo de que estén todos integrados en 2020. Asimismo el Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Vasco a que colabore en el proyecto, tanto en la difusión como en la financiación del mismo.

9. Udalbatzak bere gain hartzen du partaidetza prozesu bat sustatzeko konpromisoa, denbora bankuak eta tokiko monetak sortzeari buruzkoa.

9. El Ayuntamiento Pleno se compromete a promover un proceso participativo sobre la creación de bancos de tiempo y de monedas locales.

10. Udalbatzak Tokiko Gobernuari eskatzen dio hiriko ekoparke bihurtzeko Uliako mintegi zaharren eremu osoa, inguruko bizilagunen autogestioan oinarriturik. Helburua izango da bateratzea, alde batetik, inguruko ikastetxe, kolektibo eta elkarteekin antolatutako jarduerak, eta bestetik, bizilagunek programatutakoak. Era berean, Udalbatzak eskatzen du eztabaida bat irekitzeko herritarren artean, Uliako depositu zaharrak erabiltzeko modu egokienari buruz, hiriaren elementu berezi gisa duen balioa aitortzeko.

10. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Local a que consolide los antiguos viveros de Uliá en su totalidad como ecoparque urbano autogestionado por los vecinos. El objetivo será compaginar actividades con centros escolares, colectivos y asociaciones diversas del entorno con las que son programadas por el vecindario. Asimismo el Ayuntamiento Pleno insta a abrir un debate ciudadano sobre la mejor forma de utilizar y poner en valor los antiguos depósitos de agua de Uliá, reconociéndolos como elemento singular de la ciudad.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea”.

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia”.

1. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA PROPUESTA Nº 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

1. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA PROPUESTA Nº 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 2 – PP.

ABSTENTZIOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 2 – PP.

ABSTENCIONES: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.

1. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA PROPUESTA Nº 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

1. PROPOSAMENAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 4 DE LA PROPUESTA Nº 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

1. PROPOSAMENAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 5 DE LA PROPUESTA Nº 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 2 – PP.
ABSTENTZIOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-
EE.

VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 2 – PP.
ABSTENCIONES: 16 – (9) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE.

1. PROPOSAMENAREN 6. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 6 DE LA
PROPUESTA Nº 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.

ABSTENTZIOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-
EE, (2) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.

ABSTENCIONES: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE, (2) PP.

1. PROPOSAMENAREN 7. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 7 DE LA
PROPUESTA Nº 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

UNANIMIDAD.

1. PROPOSAMENAREN 8. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 8 DE LA
PROPUESTA Nº 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.

ABSTENTZIOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-
EE, (2) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.

ABSTENCIONES: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE, (2) PP.

1. PROPOSAMENAREN 9. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 9 DE LA PROPUESTA Nº 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

1. PROPOSAMENAREN 10. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 10 DE LA PROPUESTA Nº 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

2. Proposamena, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, bizitza duina izateko baliabideei buruzkoa.

2. Propuesta de Resolución presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre los recursos necesarios para tener una vida digna.

“Donostia, 2015eko urriaren 27a

“Donostia, a 27 de octubre de 2015

UDALBATZAREN
NAGUSIARI

IDAZKARITZA

A LA SECRETARIA GENERAL DE PLENO

BIZITZA DUINA IZATEKO BEHAR DIREN
BALIABIDEEI BURUZKO EBAZPEN
PROPOSAMENA

PROPOSICIÓN DE RESOLUCION SOBRE LOS
RECURSOS NECESARIOS PARA TENER UNA
VIDA DIGNA

Amaia Martinek, Irabazi Donostia taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 55. artikulua babesean, Ebazpen Proposamen hau aurkezten du, BIZITZA DUINA IZATEKO BALIABIDEEI buruz, Udalbatzan aztertua izan dadin.

Amaia Martín, portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente Propuesta de Resolución para su tratamiento en Pleno, sobre LOS RECURSOS NECESARIOS PARA TENER UNA VIDA DIGNA.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACION

Hiriaren egoerari buruzko politika orokorreko gure interbentzioan, gure hirian bizitzeko beharrezkotzat ditugun bi zutabeak azaldu ditugu. Uste dugu hiriko bizilagunek bizitza duina izan behar dutela, eta bizitza duina izateko, alde batetik baliabide ekonomikoak behar ditugu (lana, etxebizitza eta zerbitzu publikoak); bestetik, baliabide natural gutxiago kontsumitu behar ditugu (eraginkortasun energetikoa areagotuta) eta oinarrikoak ez diren gure beharrak murriztu.

En nuestra intervención de política general sobre el estado de la ciudad, hemos desarrollado los dos pilares sobre los que entendemos debe sustentarse la vida en nuestra ciudad. Consideramos que los habitantes de la ciudad debemos tener una vida digna. Y para tener una vida digna, hacen falta por un lado recursos económicos: empleo, vivienda y servicios públicos, y por otro consumir menos recursos naturales, ganando eficiencia energética, y reduciendo nuestras necesidades vitales.

Ebazpen proposamen honen bitartez, proposamen zehatzak egin nahi ditugu lan duina, etxebizitza eskubidea eta kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko.

A través de esta propuesta de resolución queremos trasladar con propuestas concretas cómo se puede garantizar el empleo digno, el acceso a una vivienda y unos servicios públicos de calidad.

Hori horrela, ebazpen proposamen hau aurkezten dugu.

Por todo ello, presentamos la siguiente

EBAZPEN PROPOSAMENA

PROPUESTA DE RESOLUCION

1.- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio jar dezala martxan legealdi osorako enplegu plan bermatu bat. Planaren helburuak izan behar du lana ematea lan egiteko egoeran egonik lanik aurkitzen ez duten eta beren borondatez planarekin bat egiten duten pertsona guztiei.

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a la puesta en marcha de un plan de empleo garantizado gestionado directamente para toda la legislatura. El citado plan tendrá como objetivo proporcionar un empleo a todas aquellas personas que estando en situación de trabajar no encuentran uno y decidan voluntariamente sumarse al mismo.

Enplegu plan bermatuak bi ardatz izango

Este plan de empleo garantizado tendrá dos

ditu:

a) Pertsonenganako arreta, udal langile gehiago jarrita gizarte ekintzako sailean, hobeto erantzuteko gizarte arloko beharrei.

b) Enplegu berdeak sortzea, energia berriztagarrien arloan, energetikoki buruaskiak izateko, eta ingurune naturalaren, hondakinen kudeaketaren edo eraikinen birgaitze energetikoaren zaintza, babes eta hobekuntzaren arloan.

2.- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio azterlan ekonomiko, finantzario eta juridiko bat egiteko, helburua izanik aztertzea zer aukera dauden Udalak eta haren mendeko erakundeek zeharka kudeatzen dituzten zerbitzu publiko jakin batzuk munizipalizatzeko. Azterlanak bi alderdi zehaztuko ditu nagusiki: zerbitzu horiek kudeatzeko formula juridiko bideragarriena (enpresa publikoen bidez edo udal zerbitzuen bidez), eta zuzeneko kudeaketak Donostiako Udalarentzat izango lukeen kostu ekonomikoa, baita munizipalizazioak lan arloan izango lukeen eragina ere. Gainera, datozen hiru urteetan amaituko diren azpikontratutako zerbitzuei buruzko xehetasunak jasoko ditu.

3.- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio beharrezko giza baliabideak jartzeko kontratazio publikoetan gizarte klausulen jarraipena egiteko, urtebeteko edo hortik gorako kontratuetan. Gainera, Udal Gobernuari eskatzen dio ere lana banatzeko neurriak dituzten lan hitzarmenen mende dauden enpresen balorazioa sartzeko gizarte klausuletan.

ejes:

a) La atención a las personas, mediante el incremento del personal del departamento de acción social, con el objetivo de atender mejor las crecientes necesidades sociales.

b) La creación de empleos verdes en energías renovables que nos permitan ser autosuficientes, así como en el ámbito de la vigilancia, cuidado y mejora de nuestro medio natural, la gestión de los residuos, o la rehabilitación energética de los edificios.

2.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a elaborar un estudio integral de carácter económico, financiero y jurídico que analice la posibilidad de municipalizar algunos de los servicios públicos que el Ayuntamiento y sus entes dependientes gestionan de forma indirecta. El citado estudio especificará tanto la fórmula jurídica mas viable para la gestión de los mismos, bien a través de empresas públicas, bien como servicios municipales, como el coste económico que para el Ayuntamiento de Donostia supondría su gestión de forma directa, así como las consecuencias laborales de la citada municipalización. Asimismo, contendrá un detalle pormenorizado de aquellos servicios subcontratados que finalizan en los próximos tres años.

3.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a nombrar el personal necesario para hacer un seguimiento del cumplimiento de las cláusulas sociales en las contrataciones públicas para aquellos contratos de duración igual o superior a un año. Asimismo, insta al Gobierno municipal a incluir en las cláusulas sociales la valoración de las empresas sujetas a convenios laborales que incluyan en los mismos medidas para el reparto del trabajo.

4.- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio martxan jartzeko urtea amaitu aurretik 2015-09-24ko udalbatzak onartutako kontrol mozioan Donostian etxe kaleratzeak saihesteko jasota dauden neurriak.

5.- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio moratoria bat onartzeko etxebizitza berrien eraikuntzarako (ordezko bizitoki kasuan izan ezik), eraikinen irisgarritasuna hobetzeko eta birgaitze energetikoko planak indartzeko, eta eraikinak bizikidetzaren unitate berrien errealitatera egokitzeko.

6.- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio lanaldia borondatez murrizteko formulak aztertzeke udal langileen sindikatuen ordezkariekin eta bere mendeko erakundeekin batera.

7.- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio lankidetzaren hitzarmen bat izenpetzeko Laneko Ikuskaritzarekin, Udaltzaingoak erakunde horrekin lan egin dezan lan irregularitasunak antzemateko zerbitzuen sektorean.

8.- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio etengabeko ebaluazio bat egiteko legealdian martxan jartzen dituen estimulu ekonomikoko planetan eta antzekoetan, legealdian bertan balora dadin plan horien helburuak betetzen diren.

Stua.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea”.

4.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que ponga en marcha antes de fin de año las medidas recogidas en la moción de control aprobada en la sesión plenaria de 24-09-2015 para evitar desahucios en Donostia.

5.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que establezca una moratoria a la construcción de viviendas nuevas (excluidas las de realojo), y refuerce los planes de mejora de la accesibilidad, la rehabilitación energética de los edificios o la adaptación de los mismos a la realidad de las nuevas necesidades de las unidades convivenciales.

6.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno a explorar con los representantes sindicales de los y las trabajadoras municipales y sus organismos y entes dependientes, fórmulas para aplicar la reducción voluntaria de la jornada laboral.

7.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a la firma de un convenio de colaboración con la Inspección de Trabajo de manera que la guardia municipal colabore con la misma en la detección de irregularidades laborales en el sector servicios.

8.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que lleve a cabo una evaluación continua de los planes de estímulo económico o similares que ponga en marcha a lo largo de la legislatura, de forma que se valore en el tiempo la consecución de los objetivos marcados en los mismos.

Fdo. Amaia Martin Garin
Portavoz del grupo municipal Irabazi Donostia”.

2. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA PROPUESTA Nº 2:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

2. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA PROPUESTA Nº 2:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

2. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA PROPUESTA Nº 2:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 2 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE.

ABSTENCIONES: 2 – PP.

2. PROPOSAMENAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 4 DE LA PROPUESTA Nº 2:

BOZKETAREN EMAITZA:

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 15 – (7) PSE-EE, (6) EH
BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 2 – PP.
ABSTENTZIOAK: 9 – EAJ-PNV.

APROBADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 15 – (7) PSE-EE, (6) EH
BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 2 – PP.
ABSTENCIONES: 9 – EAJ-PNV.

2. PROPOSAMENAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 5 DE LA
PROPUESTA Nº 2:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 2 - IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 24 – (9) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) PP.

2. PROPOSAMENAREN 6. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 6 DE LA
PROPUESTA Nº 2:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 9 – (7) PSE-EE, (2)
IRABAZI DONOSTIA.
ABSTENTZIOAK: 17 – (9) EAJ-PNV, (6) EH
BILDU, (2) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 9 – (7) PSE-EE, (2)
IRABAZI DONOSTIA.
ABSTENCIONES: 17 – (9) EAJ-PNV, (6) EH
BILDU, (2) PP.

2. PROPOSAMENAREN 7. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 7 DE LA
PROPUESTA Nº 2:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP.

PSE-EE, (2) PP.

2. PROPOSAMENAREN 8. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 8 DE LA PROPUESTA Nº 2:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

UNANIMIDAD.

3. PP Taldeak aurkeztutako ebazpen proposamena, EAJ-PNV eta PSE-EE Taldeek adostua, auzoetako irisgarritasun eta mugikortasun baldintzak direla-eta

“AL SR. ALCALDE

Miren Azkarate Villar, Ernesto Gasco Gonzalo eta Miren Albistur Garmendiak, behean sinatzen duten udal taldeetako bozeramaileek, Udaltzatzen Araudi Organikoko 55. artikulua oinarri, honako EBAZPEN PROPOSAMENA aurkezten dute, Udaltzatzen azter dadin, auzoetako irisgarritasun eta mugikortasun baldintzak direla-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Mugikortasun bertikala, goialdeetako auzoetako irisgarritasunarekin batera, herritarren eskaera nagusietako bat da. Eskaera horiek egiten dira, batez ere, beren ezaugarri orografikoengatik, mugikortasun arazoak izan diren auzoetan. Arazo horiek zailago egiten dute auzo horietako bizilagunen bizitza, urte luzeetan. Hala, haietako askok bizi kalitate eskasa izan dute,

3. Propuesta de resolución presentada por el Grupo PP y transaccionada por los Grupos EAJ-PNV y PSE-EE, sobre la accesibilidad y movilidad vertical en los barrios.

“AL EXCMO. SR. ALCALDE

D^a Miren Azkarate Villar, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D^a Miren Albistur Garmendia, portavoces de los grupos municipales abajo firmantes, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, sobre accesibilidad y movilidad vertical en los barrios.

JUSTIFICACIÓN

La movilidad vertical junto con la accesibilidad en los barrios altos es una de las principales demandas ciudadanas. Demandas solicitadas especialmente en aquellos barrios en los que por sus características orográficas se han dado problemas de movilidad. Problemas que durante muchos años han dificultado seriamente la vida a sus vecinos, muchos de los cuales han tenido una baja calidad de vida y graves problemas en

bai eta arazo larriak ere toki batetik bestera mugitzeko.

Mugikortasun bertikala eta irisgarritasuna hobetzeko proiektu asko abian jarri izan dira goialdeetan, eta denek izan dute adostasun politiko eta sozial handia. Aizkorri, Larratxo, Lizardi eta San Roke bezalako auzoetan gauzatu dira horrelako proiektuak: eskailera mekanikoak, arrapalak nahiz igogailuak. Horiek guztiek lagundu dute auzotarren bizikaltatea nabarmen hobetzen; are gehiago, haietako askoren bizimodua aldatu ere egin dute. Proiektu horiek garestiak izan arren, azkar errentagarri egin eta amortizatu dira sozialki. Diru hori ondo inbertitu da gizartean, herritarren bizi kalitatea hobetzeraren.

Goialdeetako auzoetan egindako partaidetza prozesu guztietan auzotarrek behin eta berriz agertutako eskaerak eta uda taldeek aurkeztutako ekimen ugariak gorabehera, Aizkorri kaleko igogailuak abian jarri zirenetik, hau da, 2010eko martxotik, orain arte, udal honek ez du beste inolako esku-hartzerik egin irisgarritasun bertikalaren arloan.

Egungo Gobernuaren Inbertsio Planaren hasierako proposamenaren arabera, horrelako esku-hartzeak egin behar ziren Erregezaintza kalean, Gantxegi bidean, Heriz pasealekuan eta Altzan. Amara Zaharrean arrapalak egin nahi ziren. Talde Popularraren ekimen bati esker, Aieten igogailu bat jartzeko proiekturako kontu-sail bat ere sortu zen. Baina egia da, baita ere, esku-hartze horietaz gain, beste batzuk ere lehenatasunezkoak direla eta herritarrek eskatzen dituztela, hala nola, Añorga, Herrera eta Egiakoak.

sus desplazamientos.

Muchos han sido los proyectos de movilidad vertical y accesibilidad que se han puesto en marcha en las zonas altas, todos ellos apoyados por amplios consensos políticos y sociales. Proyectos como los de Aizkorri, Larratxo, Lizardi o San Roke, realizados bien mediante escaleras mecánicas, rampas o ascensores, que han mejorado notablemente la calidad de vida de los vecinos, e incluso han cambiado la vida a muchos de ellos. Proyectos que pese a tener un coste económico importante han sido rápidamente rentabilizados y amortizados socialmente. Ha sido un dinero socialmente bien invertido en la mejora de la calidad de vida de los ciudadanos.

A pesar de las reiteradas demandas vecinales recogidas en todos los procesos participativos realizados en los barrios altos, y de las múltiples iniciativas presentadas por los grupos municipales, desde que en marzo de 2010 se pusieran en marcha los ascensores de la calle Aizkorri, hasta la fecha no se ha realizado ninguna intervención más por parte de este ayuntamiento en materia de accesibilidad vertical.

El Plan de inversiones del actual Gobierno contemplaba en su propuesta inicial actuaciones en esta materia en Escolta Real, Gantxegi, Hériz, en Altza y rampas en Amara Viejo. Gracias a una iniciativa del Grupo Popular se incluyó también una partida para el proyecto de Ascensor de Aiete. Pero no es menos cierto, que a estas actuaciones hay que incluir otras también prioritarias y exigidas por la ciudadanía, Añorga, Herrera y Egia.

Laster, 2016ko Aurrekontu Proiektua aurkeztuko da. Bertan jasota dago Gobernu Taldeak mugikortasun bertikalaren alde egindako apustua.

Aditzera eman zaigunez, 2016ko Aurrekontu Proiektua ez bada aurkeztu, agindu bezala, urriaren 15 baino lehen, Udalak Finantzatzeko Foru Funtza 2015ean nola itxiko zen eta 2016rako zer aurreikuspen egiten ziren ez genekielako izan da.

Hortaz, bada garaia, 10 milioi erantsi horiekin, irisgarritasun proiektu horiek eduki erreala izaten has daitezen, eta idazteko fasetik inbertsio errealetara pasa daitezen, azkenean gauzatzearren

Horregatik guztiagatik, eta badakigunez irisgarritasuna herritarren eskubidea dela, gure iritziz, gai honetan lan egin behar da politikaren eta ekonomiaren aldetik, bai Udalean den "Mugikortasun bertikaleko plan estrategiko zuzendaria"n bildutako proiektuak berriz hartuz eta garatuz, bai hurrengo aurrekontu proiektuetan sartzen diren kontu-sail batzuen helburu gisa ezarriz mugikortasun bertikala izatea gobernuaren jardueraren ardatzetako bat.

Horregatik, Talde Popularrak honako EBAZPEN PROPOSAMENA aurkezten du Udalbatzan azter dadin:

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu Taldeari 2016ko Aurrekontuan, hau da, agintaldiko lehen aurrekontuan, irisgarritasun eta mugikortasun bertikala hobetzeko esku-hartze proposamen zehatz bat aurkezteko, goialdeetako auzoetan gauzatzekoa, eta, horretarako, beharrezko

En próximas fechas se presentará el Proyecto de Presupuesto para el 2016 que contemplará la apuesta del Equipo de Gobierno por la movilidad vertical.

Se nos ha indicado que el retraso de la no presentación del Proyecto de Presupuesto 2016 antes del 15 de octubre como se prometió es debido a la conveniencia de conocer los datos de cierre del FFFIM del 2015 y la previsión del 2016.

Por tanto, ha llegado el momento de que con esos 10 millones más de dotación estos proyectos de accesibilidad empiecen a tener contenido real y pasen de la fase redacción de proyectos a inversiones reales y por tanto a su construcción.

Por todo ello, y siendo conscientes de que la accesibilidad es un derecho de los ciudadanos, entendemos que es necesario actuar tanto política como económicamente en esta materia, retomando y desarrollando tanto los proyectos recogidos en el "Plan estratégico director de movilidad vertical" existente en nuestro Ayuntamiento, como incorporando partidas económicas en los próximos proyectos presupuestarios que hagan de la movilidad vertical uno de los ejes de la acción de gobierno.

Es por lo que los Grupo Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para su debate en Pleno:

El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que presente, en el Presupuesto 2016 que es el primer Presupuesto del mandato una propuesta detallada de actuaciones de accesibilidad y movilidad vertical, a desarrollar en los barrios altos, e incorporando a tal fin las respectivas partidas presupuestarias

aurrekontuko kontu-sailak sortu ditzala, gizarte onura handiagoa ekartzen dutenei lehenetasuna emanez, Gobernu Programan jasota bezala.

necesarias y priorizando aquellas que tengan un mayor beneficio social, como recoge el Programa de Gobierno.

Donostia, 2015eko urriaren 27a

En Donostia-San Sebastián a 27 de Octubre 2015

Miren Azkarate Villar
EAJ/PNVren udal bozeramailea

Miren Azkarate Villar
Portavoz municipal EAJ-PNV

Miren Albistur Garmendia
Talde Popularraren bozeramailea

Miren Albistur Garmendia
Portavoz Grupo Popular

Ernesto Gasco Gonzalo
PSE-EEren udal bozeramailea”

Ernesto Gasco Gonzalo
Portavoz municipal PSE-EE”

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 20 – (9) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.

ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 20 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-

EE, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.

ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

4. PP Taldeak aurkeztutako ebazpen proposamena, EAJ-PNV eta PSE-EE Taldeek adostuta, Donostia barrutitan banatzea dela eta.

4. Propuesta de resolución presentada por el Grupo PP y transaccionada por los Grupos EAJ-PNV y PSE-EE, sobre implantación de Distritos en Donostia-San Sebastián.

“ALKATEARI

“AL EXCMO. SR. ALCALDE

Miren Azkarate Villarrek, Ernesto Gasco Gonzalok eta Miren Albistur Garmendiak, udal talde sinatzaileen bozeramaileek, Udaltzaren Organo Araudiko 55. artikulua oinarri, EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkezten dute, Donostia barrutitan banatzea dela eta, Udaltzaren azter dadin.

D^a Miren Azkarate Villar, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D^a Miren Albistur Garmendia, portavoces de los grupos municipales abajo firmantes, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, sobre

implantación de Distritos en Donostia-San Sebastián.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko apirilaren 13an, Donostiako Barrutien Araudi Organikoa argitaratu zen, GAOn. Araudi horretako artikulatuan, zehazki xedapen gehigarriko lehen paragrafoan, honela dio: "Ekialdeko barrutia araudi hau indarrean sartzen den unetik egungo legealdiaren amaierara arte doan epearen barnean jarri beharko da martxan". Hau da, ekialdeko barrutiak 2015eko maiatzaren 24a baino lehen egon behar zuen martxan.

Ordutik sei hilabete igaro dira, eta galderak ere egin dizkiogu horren inguruan zinegotzi ordezkaria; oraindik, ordea, ez dakigu ez noiz eta ez nola jarriko den martxan barruti hori, nahiz eta gobernu talde berriaren inbertsio planean gure taldeak aurkeztutako zuzenketa bat sartzea onartu.

Ataleko zinegotzi ordezkariak bere lehen agerraldian, gure galderei erantzunez, adierazi zuen gaia aztertzen ari zela eta urrian jadanik egongo zela gure hirian barrutiak eta, bereziki, ekialdeko barrutia nola ezarri azaltzeko moduan.

Ordutik ez dugu beste ezer jakin kontu garrantzitsu honen inguruan eta zain gaude legealdiko lehen aurrekontuak zer jasoko ote duen.

Hori dela eta, talde popularrak EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkeztu du, Udalbatzan azter dadin:

JUSTIFICACIÓN

El 13 de abril de 2015 se publicó el Reglamento orgánico de distritos de Donostia/San Sebastián en el BOG. En su articulado y en concreto en su Disposición Adicional párrafo primero se recoge lo siguiente: "El Distrito Este deberá puesto en marcha en el periodo comprendido entre la entrada en vigor del presente Reglamento hasta la terminación de la presente Legislatura". Es decir, debería de haber estado en marcha el Distrito Este antes del 24 de mayo del 2015.

Pasados seis meses y realizadas diversas preguntas a la Delegada del Área a día de hoy no se conoce ni cuándo, ni cómo entrará en funcionamiento este Distrito, a pesar de que en el plan de inversiones del nuevo Equipo de gobierno se aceptó una enmienda de nuestro Grupo para esta finalidad Este Grupo en el Plan de Inversiones.

La Delegada del área en su respuesta a nuestras preguntas en su primera comparecencia indicó que lo estaba estudiando y que en octubre estaría ya en condiciones de exponer su planteamiento de implementación de los distritos en nuestra ciudad y en particular el Distrito Este.

Desde entonces a día de hoy no hemos vuelto a tener noticia alguna sobre esta importante cuestión y estamos a la espera de lo que al respecto contemple el primer presupuesto de la legislatura.

Es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para su debate en Pleno:

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari sei hilabete igaro baino lehen aurkez dezala hirian barrutiak ezartzeko proposamena, ekialdeko barrutitik hasita eta dagokion diru hornidura sartuta, Barrutien Araudi Organikoak ezarritakoarekin bat.

El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que presente antes de seis meses su propuesta de implementación de los distritos en la ciudad. Empezando por el Distrito Este e incorporando su correspondiente dotación económica tal y como recoge el vigente Reglamento Orgánico de Distritos.

Donostian, 2015eko urriaren 27an

En Donostia/San Sebastián a 27 de Octubre 2015

Miren Azkarate Villar
EAJ-PNVren bozeramailea

Miren Azkarate Villar
Portavoz municipal EAJ-PNV

Miren Albistur Garmendia
Talde Popularraren bozeramailea

Miren Albistur Garmendia
Portavoz Grupo Popular

Ernesto Gasco Gonzalo
PSE-EEren bozeramailea”

Ernesto Gasco Gonzalo
Portavoz municipal PSE-EE”

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 20 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 20 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 6 – EH BILDU.

5. EH BILDU Taldeak aurkeztutako ebazpen proposamena, EAJ-PNV eta PSE-EE Taldeek adostua, Urumeako ibarrean egin beharreko esku-hartzea lehentasunezkoa eta estrategikoa dela eta.

5. Propuesta de resolución presentada por el EH BILDU y transaccionada por los Grupos EAJ-PNV y PSE-EE, relativa a la intervención prioritaria y estratégica a realizar en la cuenca del Urumea.

“ALKATE JAUNARI

Bildu talderaren bozeramaile Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Udalbatzaren Araudi

organikoaren 55. artikularen babesean, POLITIKA OROKORREKO URTEKO ADIERAZPENERAKO azterkizun aurkezten diogu Udalbatzari honako ebazpen hau, Urumeako ibarrean egin beharreko esku-hartzea lehentasunezkoa eta estrategikoa dela eta.

JUSTIFIKAZIOA:

Martutene eta Txominenea auzoetako herritarrek, bai eta 27. Poligonoaren erabiltzaileek ere, ikusi dute urte askoan beren auzoak albo batera utzi izan zirela, udal Gobernuen lehentasunetatik at.

Erakundeek haien alde ezer ez egite horrek nekea, asperraldia eta frustrazioa eragiten zituen auzotar haiengan, haiek ikusten baitzuten beren lokal, garaje eta negozioak behin eta berriz urak hartuta gelditzen zirela, eta administrazio eskudunez ez zutela inolako neurririk hartu.

Horregatik, aurreko legealdian Urumeako ibaia hirigintza aldetik biziberritzea lehentasunezko esku-hartzetzat hartu zen, bai eta, horrekin batera, uholdeen kontrako neurri zehatz eta nabariak hartzea ere. Erasandako auzoetako bizilagunek ere parte hartzeak ziren.

Ildo horretatik, mugari garrantzitsuak jarri ziren, hala nola, Urumeari buruzko Erakunde Arteko Batzordearen eraketa –gaien eskumena zuten administrazio guztiek osatua eta, nola ez, Martutene, Txomin, 27. Poligonoko auzo elkarteetako bizilagunen parte hartze aktiboarekin–; Martuteneko lehen faseari ekin zitzaion, Txomineneko obren lizitazioa, Lorategi-Hiriko plangintza lanak, Antzieta eta Martutene.

“JUSTIFICACIÓN:

Los y las ciudadanas de los barrios de Martutene y Txomin-Enea, así como los usuarios del Polígono 27, han visto durante muchos años como sus barrios quedaban relegados y fuera de las prioridades de los Gobiernos municipales.

Dicha inacción por parte de las instituciones generaba cansancio, hartazgo y frustración en unos vecinos y vecinas que veían cómo periódicamente sus viviendas, locales, garajes y negocios se inundaban una y otra vez sin que por parte de las administraciones competentes se tomaran medidas algunas.

Por eso, la legislatura anterior se fijó como actuación prioritaria la regeneración urbanística de toda la vega del Urumea y la adopción de medidas concretas y tangibles contra las inundaciones, además con el concurso de los y las vecinas de los barrios afectados.

En este sentido, se pusieron en marcha hitos importantes como la constitución de la Comisión Interinstitucional del Urumea, compuesta por todas las administraciones con competencia en la materia y, por supuesto, con la presencia activa de los y las vecinas como los de la AAVV de Martutene, Txomin y Polígono 27; El inicio de la primera fase de Martutene, la licitación de las obras de Txomin, los trabajos de planeamiento en Ciudad Jardín, Antzieta y Martutene.

Baina, guztiz ezinbestekoa den esku-hartze hori ezin da ez albo batera ez bertan behera utzi, eta guztizko lehentasuna duten esku-hartzeak ezin dira eten: Txomineko obrei ekitea, beharrezko aurrekargak, Espartxo eta Astiñene zubiak aldatzea edo Lorategi Hiriko, Antzietako eta MartuteEBAZPENA:

Sin embargo, esta actuación absolutamente imprescindible no puede ni delegarse, ni paralizarse, ni suspenderse actuaciones totalmente prioritarias como el inicio de las obras de Txomin, con las necesarias precargas, la sustitución de los puentes de Espartxo y Astiñene o la aprobación definitiva del planeamiento en Ciudad Jardín, Antzieta y Martutene.

RESOLUCIÓN:

Donostiako Udalbatzak berretsi egiten du Urumeako ibarrean egin beharreko esku-hartzea lehentasunezkoa eta estrategikoa dela, baina hori dagokie batez ere, uholdeen kontrako plan eta proiektuei eta Txominenea auzoa berriaren garapenari. Bestalde, Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Alkateari eta gobernu taldeari Txominenea auzoko aurrekarga lanei, zuzenean edo zeharka, lehentasunez ekiteko; horrekin batera, Martutene, Txomin, Loiola eta 27. Poligonoa urak ez hartzeko neurriak indartzeko eta, azkenik beharrezko kopuruak izendatzeko aurrekontu proiektuan, Martuteneko bigarren fasea ziurtatzeko eta Espartxo eta Astiñene zubiak aldatzeko.

El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián ratifica el carácter prioritario y estratégico de la actuación en la vega del Urumea y, de modo más específico, los planes y proyectos contra las inundaciones y el desarrollo del nuevo barrio de Txomin-Enea. Asimismo, insta al Alcalde y al equipo de gobierno a que acometa, directa o indirectamente, los trabajos de precarga, de forma prioritaria, en el barrio de Txomin-Enea, y refuerce las medidas para evitar la inundabilidad de los barrios de Martutene, Txomin, Loiola y el Polígono 27, y establezca en el proyecto presupuestario las cantidades necesarias para asegurar la segunda fase de Martutene y la sustitución de los puentes de Espartxo y Astiñene.

Donostia, 2015eko urriaren 27a .

En Donostia, a 27 de octubre de 2015

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea.”

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
Portavoz del grupo municipal EH Bildu”

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

6. EH BILDU Taldeak aurkeztutako ebazpen proposamena, EAJ-PNV eta PSE-EE Taldeek adostuta, herritarren partaidetza politikak direla-eta.

“ZUZENDUA

ALKATE JAUNARI:

EH Bildu udal taldeko bozeramaile Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andereak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 55. artikulua babesean, Politika Orokorreko Urteko Adierazpenerako azterkizuna aurkeztu diogu Udaltzari honako Ebazpen Proposamen hau, herritarren partaidetza politikak direla-eta:

JUSTIFIKAZIOA:

Europar Batasunak orain dela kasik hamabost urte Gobernanzarako Liburu Zuria deritzona argitaratu zuen eta adierazi zuen, gardentasunaren gehigarri gisa edukita, herri-administrazioetan herri-partaidetza ezinbesteko erreminta publikoa dela politikak erabaki eta garatzeko orduan.

Donostiari dagokionez, parte hartzearen sustapena azken legegintzaldi guztietan garatu den udal-politika izan da. Donostian txertatua dagoen filosofia eta izaera bat dugu honakoa beraz.

Izaera horri jarraiki, aurreko legegintzalditan Udaltzak erreminta berriak eskaini dizkie donostiarrei. Besteren artean, Partaidetzarako Arau Organikoa eta Demokrazia Zuzena garatzen duen Hiritar Kontsulter Erregelamendua. Guzti hauek, aho batez onartuak izateaz gain, harrotasunez defendatzen dituzte alderdi

6. Propuesta de resolución presentada por el Grupo EH BILDU y transaccionada por los Grupos EAJ-PNV y PSE-EE, relativa a las políticas de participación ciudadana.

“DIRIGIDA AL

SEÑOR ALCALDE

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, portavoz del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 55º del Reglamento Orgánico del Pleno, somete a la consideración del Pleno Anual de Declaración de Política General esta propuesta de resolución en torno a las políticas de participación ciudadana:

JUSTIFICACIÓN

La Unión Europea publicó el Libro Blanco para la Gobernanza Local hace casi 15 años y proclamó, con el apéndice de la transparencia, que en las administraciones públicas la participación ciudadana es un instrumento público indispensable a la hora de decidir y desarrollar las políticas.

Por lo que atañe a San Sebastián, el fomento de la participación ha sido una política municipal que se ha desarrollado en todas las legislaturas. Por tanto, se trata de una filosofía y de un rasgo que están enraizados en San Sebastián.

Al hilo de ese carácter, en anteriores legislaturas el Ayuntamiento ha ofrecido a la ciudadanía nuevos instrumentos. Entre otros, la Norma Orgánica de Participación Ciudadana y el Reglamento de Consultas Ciudadanas para desarrollar la democracia directa. Todos ellos, además de haber sido aprobados por unanimidad, son defendidos con orgullo por

politiko guztiek, hala nola berau sortzeko parte hartu zuten norbanako zein kolektibo andanek.

todos los partidos políticos, así como por numerosos colectivos y ciudadanas y ciudadanos que participaron en el proceso.

Hori dela-eta, ondorengo ebazpena aurkezten dugu:

Por todo lo anterior, presentamos la siguiente resolución:

EBAZPENA:

RESOLUCIÓN

1.- Donostiako Udalbatzak babesten du hiriaren Gobernantza ereduan, herritarren parte-hartze eta erantzukidetasuna garrantzitsuak direla politika publiko efikazak eta akordio zabalagoa dutenak erdiesteko. Hiritarren iritzia entzun eta aintzat hartzeak, aniztasuna balorean jartzeaz gain, gizarte-kohesioa eta hiri demokratikoagoa sustatzeko bide eraginkorra ere direlako. Donostiako Udalbatzak donostiarrei erreminta eraginkorrak eskaini dizkie partaidetza zuzenerako: Parte-hartzerako Araudi Organikoa eta Hiritar kontsulten Erregelamendua; biak Udalbatzak aho batez onarturikoak.

1.- En el modelo de gobernanza de ciudad que promueve el Ayuntamiento de San Sebastián, la participación y la corresponsabilidad ciudadana son elementos fundamentales en aras a la consecución de unas políticas públicas más eficaces y de mayor consenso. Atender y tener en cuenta la opinión de la ciudadanía supone, además de poner en valor la diversidad, la mejor vía para la cohesión social y para el impulso de una ciudad más democrática. El Ayuntamiento de San Sebastián ha proporcionado a la ciudadanía donostiarra herramientas eficaces para la participación directa: el Reglamento Orgánico de Participación y el Reglamento de Consultas Ciudadanas, aprobados, ambos, por unanimidad por el Pleno.

2015eko urriaren 27an, Donostian

En San Sebastián, a 27 de octubre de 2015

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bilduko bozeramailea “

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
portavoz del grupo EH Bildu.”

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

7. Ebazpen proposamen bateratua, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek aurkeztua eta EH BILDU eta PP Taldeek adostua, Euskal

7. Propuesta de resolución conjunta presentada por los Grupos EAJ-PNV Y PSE-EE y transaccionada por los Grupos EH

Ekonomia Itunari buruzkoa.

“EUSKAL EKONOMIA ITUNARI BURUZKO
EBAZPEN PROPOSAMENA,

DONOSTIAKO UDALBATZARI EGINA

Ernesto Gasco PSE-EE taldeko bozeramaileak eta Miren Azkarate Villar EAJ/PNV taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 55. artikulua oinarri, honako EBAZPEN PROPOSAMENA aurkezten dute, EUSKAL EKONOMIA ITUNA dela-eta, POLITIKA OROKORREKO URTEKO ADIERAZPENARI buruzko Udalbatzan aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA:

Hurrengo hauteskunde orokorrak hurbil egoteak eta, batez ere, ia segurua den gobernu aldaketa batek irekitzen duten panorama politiko berriak inprobisazio eta dramatismo pixka bat sarrarazi die alderdi batzuei beren hauteskunde proposamenetan.

Hala, ohartu gara talde batzuk erabiltzen ari direla Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren arteko zerga arloko harremanak arautzen dituen sistema, hau da, Ekonomia Ituna, berehalako hauteskunde irabazkina lortzeko. Uste dugu jokabide horren atzean ezjakintasuna dagoela; hots, ez dakitela zer den Ekonomia Ituna artikulatzen duen sistema eta ez dakitela, ezta ere, zein den haren oinarrian dagoen espiritua.

Ekonomia Itunak ezaugarri duen zerga sistemaren jatorria hirugarren gerra karlistaren amaiera gorabeheratsuan dago.

BILDU y PP, relativa al Concierto Económico vasco.

“PROPUESTA DE RESOLUCIÓN RELATIVA AL
CONCIERTO ECONÓMICO VASCO

AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN:

D Ernesto Gasco, Portavoz del Grupo PSE-EE y D. Miren Azkarate Villar, Portavoz del Grupo EAJ-PNV, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLITICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, RELATIVA AL CONCIERTO ECONÓMICO VASCO

JUSTIFICACIÓN:

La cercanía de las próximas elecciones generales del próximo 20 de diciembre y sobre todo el panorama político novedoso que se abre ante un más que posible cambio de gobierno, está suponiendo que las propuestas electorales de algunos partidos contengan dosis de improvisación y dramatismo.

Así, observamos que el sistema por el que se regulan las relaciones de orden tributario entre el País Vasco y el Estado, el llamado Concierto Económico, está siendo utilizado por diversas formaciones políticas con intención de obtener un rédito electoral inmediato. Consideramos que la base de esta actitud radica en el desconocimiento tanto el sistema que articula el Concierto como del espíritu sobre el que se asienta el Concierto Económico vasco

El sistema tributario que caracteriza el Concierto Económico hunde sus raíces en los convulsos días del final de la tercera guerra carlista.

Elkargune bakanetako bat izan zen, foru erakundeetatik gelditu zenaren eta Espainiako gobernuaren artean. 1878an martxan jarri zenetik hamarkada batzuk igarota, agerian gelditu zen baliabide horren sendotasuna, aukera ematen baitzien Aldundiei autonomia ekonomiko handia mantendu eta, era horretan, zerbitzu publiko egokiei eta inbertsio maila garrantzitsu bati eusteko. Sistemari egin ziren aldaketak barne xedapenen aldaketak izan ziren beti (kupoa, indarraldia, zerga berriak, etab.), eta inoiz ez zen haren iraupena auzitan jarri. Diktadurak eten egin zuen egoera hori, Bizkaia eta Gipuzkoa "probintzia traidoretzat" jo zituen dekretu baten bidez, eta bertan behera utzi zituen bai lurralde horien zerga bilketarako gaitasuna bai haren mende zegoen erakunde sare osoa.

Demokrazia iristean, Ekonomia Ituna berrezarri zen, frankismoaren garaian egindako dekretu bidezko abolizio hori mendekuzko arbitrariotasuna izan zela aitortu ondoren. Hala, bada, bere izaeraren alderdi funtsezkoetako bat aitortu zen, hau da, aldean arteko adostasuna eta, hortaz, aldebakartasuna ukatu zen.

Euskal Ekonomia Itunak oinarri sendoa du Konstituzio sistemari. Izan ere, Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriak babestu eta errespetatu egiten ditu foru lurraldeen eskubide historikoak. Gernikako Estatuak berak, 41. artikuluan, Ituna Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren arteko zerga harremanak arautzeko tresna dela dio. Itundutako zerga sistema berreskuratzeko prozesua 1981eko maiatzean burutu zen, Ekonomia Ituna berrezarri zenean artikulua bakarreko lege baten bidez. Argi dago sistema horren ardatzetako bat Kupoa dela, hau da,

Supuso uno de los pocos puntos de encuentro entre lo que quedó de las instituciones forales y el gobierno de España. Transcurridas algunas décadas desde su arranque en 1878, demostró ser un sólido encaje en el que las Diputaciones mantenían un elevado grado de autonomía económica y podían así ofrecer un importante grado de servicios públicos e inversión. Las modificaciones del sistema siempre se refirieron a las disposiciones internas (cupo, vigencia, nuevos tributo, etc...) pero nunca a la continuidad del mismo. La llegada de la dictadura interrumpió esta situación, mediante un decreto en el que tildaba a Bizkaia y a Gipuzkoa de "provincias traidoras", borrando la capacidad recaudatoria de las mismas así como todo el entramado institucional que de ella dependía.

Con la llegada de la democracia, reconociendo la arbitrariedad vengativa que había supuesto su abolición por decreto durante el franquismo, el Concierto Económico se recuperó. Así, se reconocía uno de los aspectos fundamentales de su esencia, que es la concertación entre las partes y por tanto la negación de la unilateralidad.

El Concierto Económico vasco se encuentra firmemente asentado en el sistema Constitucional. La disposición adicional primera de la Constitución ampara y respeta los derechos históricos de los territorios forales. El propio estatuto de Gernika establece en su artículo 41 que el Concierto será la forma de relación tributaria entre el Estado y el País Vasco. El final del proceso de recuperación del sistema tributario concertado se dió en mayo de 1981 quedando restablecido el Concierto Económico mediante una ley de artículo único. Sin duda, uno de los aspectos vertebrales de este sistema es el del pago del llamado Cupo,

Autonomia Erkidegoak, bere gain hartu ez dituen kargengatik, Estatuari egin beharreko ekarpena.

1981an egungo Ituna martxan jarri zenetik, Kupoa eguneratzeko sei lege egin dira (bost urtekoak), beti errespetatu dutenak bi aldeek alde bikotasunari eta adostasunari lehenetasuna emateko zuten borondatea. 2007an, sistemaren iraunkortasuna bermatze aldera, urteko luzapena ezarri zen aldean arteko desadostasun kasuetarako, eta orduz geroztik izan da legezko kautela neurri hori erabili duenik desadostasunean tematzeko. Hori dela-eta, 2011n aurreko legea iraungi zenetik, ezin izan da Kupoa eguneratu.

Orain, Espainian gobernu aldaketa izango dela dirudien honetan, uste dugu badela garaia Ekonomia Itunaren sistemaren xedapen batzuk eguneratzeko, taxuz jokatuz politikoki eta ados jartzeko borondatearekin.

Horiek horrela, behean sinatzen duten bozeramaileek honako EBAZPEN PROPOSAMENA sinatzen dute, Udalbatzan aztertzeko:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die abenduaren 20ko hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politikoei ez erabiltzeko Ekonomia Ituna erasotzeko arma gisa eta zerga harremanetarako sistema hori defendatzeko, zuhertasuna, zorroztasuna eta adostasunetara iristeko borondatea oinarri.

2.- Donostiako Udalbatzak aditzera eman nahi du Ekonomia Itunarekin duen konpromisoa, EA Eren eta Estatuaren arteko zerga harremanak arautzen dituen tresna

como aportación a las cargas del Estado no asumidas por la Comunidad Autónoma.

Desde que en 1981 se pusiera en marcha el actual Concierto ha habido seis leyes quinquenales de actualización del Cupo que siempre han respondido a la voluntad de las partes de primar la bilateralidad y la concertación. Desde que en 2007, precisamente como garantía de continuidad, se introdujera la prórroga anual en caso de no haber puntos de común acuerdo, ha habido quienes han utilizado esta cautela legal para enrocarse en el desacuerdo. Así, desde que en 2011 expirara la anterior ley no ha sido posible la actualización del Cupo.

Ahora, ante la probabilidad del próximo cambio de gobierno en España, consideramos que es hora de que con la suficiente altura política y voluntad de concertación se acometa la actualización de las disposiciones necesarias del sistema de Concierto Económico vasco.

Es por esto que los portavoces abajo firmantes suscriben la presente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para ser debatida en el Pleno:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta a las formaciones políticas que concurren a las elecciones del próximo 20 de Diciembre que no utilicen el Concierto Económico vasco como arma arrojadiza y a que defiendan este sistema de relación tributaria desde la ponderación, el rigor y la voluntad de pacto.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián muestra su compromiso con el Concierto Económico como instrumento que regula las relaciones tributarias entre el Estado y

den aldetik. Harreman horien oinarrian zerga eta finantza autonomiaren printzipioak daude, bai eta erakunde arteko errespetua eta elkartasuna ere, indarrean dagoen lege esparruan aitortutako eskubide historikoetan jasota bezala.

3.- Donostiako Udalbatzak gai honek erasandako erakunde eta alderdi politiko guztiei eskatzen die Ekonomia Itunean jasotako finantzaketa sistemaren berezitasunak defendatu eta azaltzeko, instantzia guztietan, figura hori auzitan jar ez dadin eta hari buruzko zalantza guztiak uxatzeko.

Miren Azkarate Villar,
EAJ udal taldeko bozeramailea

Ernesto Gasco Gonzalo,
PSE-EE udal taldeko bozeramailea

Amaia Almirall López de Luzuriaga,
Miren Albistur Garmendia,

EH Bildu udal taldeko bozeramailea
PP udal taldeko bozeramailea”

el País Vasco. Relaciones basadas en los principios de autonomía fiscal y financiera, respeto institucional así como la solidaridad, tal y como recogen los derechos históricos en el marco legal vigente.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián demanda a todas las instituciones afectadas y partidos políticos que defiendan y expliquen en todas las instancias las peculiaridades del sistema de financiación recogido en el Concierto Económico para que no se cuestione esta figura y se aleje cualquier duda sobre la misma.

Miren Azkarate Villar
Portavoz municipal EAJ-PNV

Ernesto Gasco Gonzalo
Portavoz municipal PSE-EE

Amaia Almiral López de Luzuriaga
Portavoz del grupo municipal EH Bildu

Miren Albistur Garmendia
Portavoz municipal PP”

7. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA PROPUESTA Nº 7:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) PP.

ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) PP.

ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA

7. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA PROPUESTA Nº 7:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

7. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA PROPUESTA Nº 7:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

8. Ebazpen proposamen bateratua, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek aurkeztua, Espainiako Gobernuak hiriko proiektuetan dituen inbertsioei buruzkoa.

8. Propuesta de resolución conjunta presentada por los Grupos EAJ-PNV y PSE-EE relativa a las inversiones del Gobierno de España respecto a los proyectos de la ciudad.

“ESPAINIAKO GOBERNUAK HIRIKO PROIEKTUETAN DITUEN INBERTSIOEI BURUZKO EBAZPEN PROPOSAMENA

“PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, RELATIVA LAS INVERSIONES DEL GOBIERNO DE ESPAÑA RESPECTO A LOS PROYECTOS DE LA CIUDAD

DONOSTIAKO UDALBATZARI:

AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN:

EAJ-PNV taldearen bozeramaile Miren Azkarate Villarrek eta PSE-EE taldearen bozeramaile Ernesto Gascok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 55. artikulua oinarri, EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkezten dute ESPAINIAKO GOBERNUAK HIRIKO PROIEKTUETAN DITUEN INBERTSIOEI buruz, POLITIKA OROKORREKO URTEKO ADIERAZPENARI buruzko Udalbatzan azter dadin.

Dña. Miren Azkarate Villar, Portavoz del Grupo EAJ-PNV, y D Ernesto Gasco, Portavoz del Grupo PSE-EE y al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLITICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, RELATIVA LAS INVERSIONES DEL GOBIERNO DE ESPAÑA RESPECTO A LOS PROYECTOS DE LA

CIUDAD.

JUSTIFIKAZIOA:

Abenduaren 20an, Espainiako hamabigarren Hauteskunde Orokorrek egingo dira. Legealdi honetan Alderdi Popularraren Gobernuak geldiarazi dituen proiektu ugarietako batzuek eragin nabarmena dute gure hiriaren etorkizunean. Plan estrategiko asko ez aurrera ez atzera dauden honetan, eskaera bat egin nahi diogu hauteskundeetatik aterako den gobernuari: sar ditzala bere legealdi proiektuan gure hiriaren garapenerako beharrezkoak diren inbertsioak, gure hiriak aurrera egiten jarrai dezan, duela lau urte arte egin zuen moduan.

Donostia kalitate handiko hiri eremua da, Europan gehien baloratzen den hirietako bat, parekorik ez duen ingurune natural batean kokatua eta gaur egungo Udal Gobernuak hobetu nahi dituen zerbitzu publikoak dituen.

Proiektu batzuk geldirik daude egoera ekonomikoarengatik eta Espainiako Gobernuaren erabaki politikoengatik; beste batzuk, aurreko udal gobernuaren erabakiengatik.

Gure hiriarentzat funtsezkoa den egitasmoetako bat Zubietako espetxe berria eraikitzea da. Azken legealdi honetan, aldatu egin da urte anitzeko aurrekontu kontsignazioa, ia arriskuan jartzearaino Txomin Eneako II Fasearen eraikuntza lanak (gaur egun Martuteneko espetxe zaharrean dauden presoek lekualdatzeari lotutako egitasmoa). Garrantzitsuena, hain zuzen ere, horixe baita: presoek bizileku duin bat izatea eta Espetxeetako Zuzendaritzaren

JUSTIFICACIÓN:

El próximo día 20 de diciembre se celebrarán las duodécimas elecciones a Cortes Generales. Durante esta última legislatura, el actual Gobierno del Partido Popular ha paralizado numerosos proyectos de los que depende en buena medida el futuro desarrollo de nuestra ciudad. Esta situación de estancamiento en planes estratégicos, nos obliga a instar a que el Gobierno resultante de dichas elecciones incorpore en su proyecto de legislatura las inversiones necesarias, para que nuestra ciudad progrese como hasta hace cuatro años venía haciéndolo.

Nuestra ciudad es un espacio urbano de alta calidad, uno de los mejor valorados de Europa, rodeada de un entorno natural incomparable y con unos servicios públicos que queremos y, desde el actual Gobierno Municipal, pretendemos mejorar.

Algunos proyectos han sido paralizados por la coyuntura económica y por decisiones de carácter político por parte del Gobierno de España y otro lo han sido por decisiones políticas del anterior mandato municipal.

Uno de los proyectos de carácter esencial para nuestra ciudad es el de la construcción de la nueva cárcel en Zubieta. Durante esta última legislatura la consignación presupuestaria plurianual se ha ido modificando hasta el punto de poner en riesgo la construcción de la II Fase de Txomin-Enea, vinculada al traslado de de los presos que en la actualidad se encuentran en la vieja cárcel de Martutene. Esto último es lo más importante, la necesidad de que los presos estén en unas condiciones dignas y no en unas

esanetan estatuko espetxe zaharkituenetarikoa bat dena ixtea.

instalaciones que, según la actual Directora de Instituciones Penitenciarias, se encuentran entre las más deterioradas del Estado.

Abiadura handiko trenaren proiektuak hainbat aurreikuspen izan ditu trena gure hirira sartzeko moduari dagokionez, eta horrek egitasmoa atzeratzea eragin du. Trenbide sarearen garapenean –bai Gipuzkoan bai Donostian– izan diren etengabeko atzerapenek kezka sortzen digute, eta kaltegarri dira gure hiriaren ekonomiarentzat eta beste egitasmo batzuetan. Sustapen Ministerioaren azken aurreikuspenen arabera, baldin eta atzerapen gehiagorik ez badago, abiadura handiko trena ez da gure hirira iritsiko 2019ra arte. Dena dela, bada oraindik ADIFek zehaztu ez duen kontu bat: hots, Tabakalerara eta autobus geltoki berrira moldatuko den diseinu egoki bat, trenbideen eremua estaliz plaza berri bat sortuko duena Tabakaleraren fatxadaren aurrean, eta sarbideak bateratuko dituena, aldirietako trenen nasetara, abiadura handiko trenen nasetara eta autobus geltokira.

La llegada del tren de Alta velocidad a nuestra ciudad ha tenido distintas previsiones que han ido retrasándose año tras año. Estos continuos retrasos en el desarrollo ferroviario, tanto en Gipuzkoa como en San Sebastián, es un motivo de preocupación que repercute negativamente en la economía de la ciudad y en la culminación de otros proyectos. Las últimas estimaciones del Ministerio de Fomento nos llevan a un escenario en el que si no hay más retrasos, la llegada de la alta velocidad a nuestra ciudad no será una realidad hasta el 2019. Pero uno de los elementos que todavía ADIF no termina de definir es un diseño que se integre adecuadamente tanto con Tabakalera como con la nueva estación de autobuses, que cubriendo la playa de vías genere una plaza ante la fachada de Tabakalera permitiendo su visibilidad, y unifique los accesos, tanto a los andenes de los trenes de cercanías, a los de la alta velocidad, como a la estación de autobuses.

Monpaseko Pasabidearen proiektuari dagokionez, aurreko udal gobernuaren erabaki politiko batek geldiarazi zuen. Proiektuak ingurumen arloko agintarien oniritzia zuen, bai Espainiako Gobernuarena bai Eusko Jaurlaritzarena. Gainera, Ingurumen Ministerioaren ekarpena ere hitzartuta zegoen, operazioaren guztizkoa ordaintzeko, 9,2 milioi euro hain zuzen. Errealitate bihurtu nahi dugu hiriaren itsasertzeko pasealekuei akabera emango liekeen proiektu hau, eta berriro ere kontuan hartzea eskatzen diogu abenduaren 20ko hauteskundeetatik aterako den gobernuari.

Un proyecto paralizado por decisión de carácter político del anterior gobierno municipal, es el proyecto de la Pasarela de Monpás. El proyecto contó con el beneplácito de las autoridades ambientales competentes tanto del Gobierno Español como del Gobierno Vasco. Del mismo modo, se logró contar con el concurso del Ministerio de Medio Ambiente para que sufragara el total de la operación, que asciende a 9,2 Millones de euros. Queremos que este proyecto que culminaría la fachada marítima de la ciudad en la Punta Monpás sea una realidad y vuelva a ser tenida en cuenta para el Gobierno que salga de las elecciones del próximo 20 de diciembre.

Zahartzeari buruzko Ikerketa Zentro Nazionalaren proiektua, zeinaren kokapena Eusko Jaurlaritzak eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak 2011ko uztailean hitzartu baitzuten, geldirik jarraitzen duen beste egitasmoetako bat da, eta kezagarriagoa dena, Alderdi Popularraren Gobernuak beste hiri batera eramatea proposatu du; Gasteizera, hain zuzen. Azpiegitura zientifiko honek munduko I+G+b mapan kokatuko luke Donostia, gure hiriak zientziaren hiri gisa eginiko apustu estrategikoa aitortzeaz gainera. Ez alferrik, 500 ikertzaile baino gehiago erakarriko lituzke, adinaren arazo degeneratiboekin lotutako alderdi biomediko, sozial, kliniko eta zientifikoetan arituko liratekeenak.

Metroaren igarobide berriak, Donostialdeako Metroaren proiektuaren jarraipen gisa, lotura izan behar du, ez bakarrik tren sare horrekin, baita trenbide sistema desberdinei eman beharreko irtenbide bateratuarekin ere. Horregatik, uste dugu inoiz baino garrantzitsuagoa dela aurrera egitea Loiolako Erriberako geltoki/intermodala proiektuaren idazketan, Gipuzkoako aldirietako lineen konbinazioa ahalbidetuko duen egitasmoa, milaka bidaiari izango dituen, Gipuzkoako biztanleriaren %80a sare bikoitz hori erabiltzeko moduan egongo baita. Uste dugu beharrezkoa dela lankidetzaz hitzarmen bat izenpetzea ADIFekin, Loiolako Erriberako geltoki/intermodala proiektua idazteko elkarrekin, RENFEren aldirietako lineak eta Donostialdea-Euskotren Metroaren lineak konektatzeko.

Azken urteetan, hainbat erakundek, hala nola Estatuaren Administrazio Orokorrak, lekuz aldatu dituzte gure hiriko herritarrei

El futuro Centro Nacional de Investigación sobre el envejecimiento, cuya ubicación fue acordada entre el Gobierno Vasco, y el Ministerio de Ciencia e Innovación en julio del 2011, ha quedado también en suspenso o lo que es más preocupante, se ha planteado por parte del actual Gobierno del Partido Popular, trasladarlo a otra sede, concretamente a Vitoria-Gasteiz. Una infraestructura de carácter científico que colocaría a San Sebastián en el mapa mundial en I+D+I. Y que supondría el reconocimiento a la apuesta estratégica de nuestra ciudad como ciudad de la ciencia. Además de acoger a más de 500 investigadores en cuestiones biomédicas, sociales, clínicas y científicas, relacionadas con los problemas degenerativos asociados a la edad y a los cuidados que se necesitan.

La importancia estratégica de la nueva pasante, que deberá de construirse como continuación del proyecto del Metro de Donostialdea, debe de estar ligada no sólo a esta red ferroviaria sino que debe de ser parte de una cohesión entre distintos sistemas ferroviarios. Por esto, consideramos que ahora más que nunca resulta clave avanzar en la redacción de un proyecto de estación-intercambiador en Riberas de Loiola que permita la combinación de las líneas de cercanías que operan en Gipuzkoa, de modo que se ganen miles de viajeros por la práctica vinculación del 80% de la población guipuzcoana a esta doble red. Entendemos que es necesario suscribir un convenio de colaboración con ADIF al objeto de redactar conjuntamente el proyecto de estación/intercambiador de Riberas de Loiola que conecte las líneas de RENFE cercanías y del Metro de Donostialdea-Euskotren.

En los últimos años distintas instituciones como la Administración General el Estado, han reubicado numerosos servicios que en la

eskaintzen dizkieten zerbitzu ugari. Lekualdatze horiei esker, baliabideak optimizatu eta hobetu egin dira administrazio eta zerbitzuetan lan egiten duten pertsonen lan baldintzak. Hala, eraikin asko erabiltzeari utzi zaio. Besteak beste, Pio XII.a plazako Gobernu Ordezkaritzaren kasua da. Eraikin horiek bizitegi modura erabil daitezke, gazteentzako edo adindunentzako bizitoki gisa, edo udal zerbitzuren baten egoitza modura. Azken batean, eraikin horien lagapena da eskatzen ari garena, goiko lerroetan aipatutako moduan erabiltzeko.

actualidad prestan a la ciudadanía en nuestra ciudad. Esta reubicación ha permitido la optimización de los recursos y ha mejorado las condiciones laborales de las personas que trabajan para la administración y el servicio que se da a los ciudadanos. Como consecuencia, un importante número de edificios patrimonio de estas instituciones, han dejado de ser utilizados por éstas. Entre otros, la actual sede de la Subdelegación del Gobierno en la Plaza de Pio XII. Estos edificios podrían tener o bien uso residencial adaptándolos a viviendas para jóvenes o mayores o bien dándoles un uso dotacional municipal. En cualquier caso lo que pedimos es la cesión de estos edificios para dicho fin.

Azkenik, ez da inolako aurrerapausorik egin Loiolako kuartelak lekuz aldatzeko gaian, oinarrizko helburu dena hiriarentzat, aukera emango bailiguke Urumeako erriberaren hirigintza eraldaketa burutu eta erabilera egoki bat emateko hiri bilbean kokapen egokia duen eremu bati, etxebizitzak eta jarduera ekonomikorako eremuak eraikiz.

Y por último, no se ha producido ningún avance en relación al cambio de destino de los cuarteles de Loiola, un objetivo primordial para la ciudad, que permitiría completar la regeneración urbana de la Ribera del Urumea, y dar un uso adecuado a una parcela muy bien situada en la trama urbana, mediante la construcción de viviendas y espacios para actividad económica.

Proiektu hauek guztiak garatzeko daude, eta kasu askotan ezinbestekoak dira herritarren garapenean eta ongizatean sakontzen jarraitzeko, bizi kalitate hobea izateko hiriaren zonalde eta auzoetan.

Todos estos proyectos están pendientes, siendo imprescindibles en muchos casos para continuar impulsando el desarrollo, el bienestar de la ciudadanía y una mayor calidad de vida para los barrios y zonas de la ciudad.

Proiektu estrategiko hauetako askok –denak ez esatearren– martxan egon behako lukete. Geldirik ez daudenak oso mantso doaz, eta horrek aurrera egitea eragozten digu.

Muchos, si no todos estos proyectos estratégicos deberían estar en proceso y sin embargo se encuentran si no paralizados, muy ralentizados lo que nos impide avanzar como quisiéramos.

Horregatik guztiagatik, behean izenpetzen duten bozeramaileek EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkezten dute:

Es por lo que el Portavoz que suscribe presenta la siguiente

Udalbatzan aztertzeko EBAZPEN

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para ser

PROPOSAMENA:

1.- Donostiako Udalbatzak Estatuko Gobernuari eskatzen dio Oinarrizko Hitzarmen bat egiteko hiri honetako Udalarekin, aintzat hartuko dituen gure hiriko inbertsio eta proiektu nagusiak: Zubietako espetxe berria, AHTren geltoki integratua, Mompaseko Pasabidea, Miramongo Zahartzeari buruzko Ikerketa Zentro Nazionala, Loiolako Erriberako geltoki/intermodalaren proiektua, administrazioek erabiltzen ez dituzten eraikinen lagapena udalari, eta Loiolako kuartelen lekualdaketa dagokion desafektazioarekin.

Miren Azkarate Villar
EAJ-PNV taldearen bozeramailea

Ernesto Gasco Gonzalo
PSE-EE taldearen bozeramailea”

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (2) PP.

ABSTENTZIOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.

debatida en el Pleno:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno del Estado que acuerde con el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián un Convenio Marco que recoja las principales inversiones y actuaciones del mismo en nuestra ciudad como son, la construcción de la nueva cárcel en Zubieta, una estación integrada para la llegada del TAV, la Pasarela de Mompás, el Centro Nacional de Investigación del Envejecimiento en Miramón, el proyecto de estación/intercambiador de Riberas de Loiola, la cesión de los distintos inmuebles y edificios en desuso de otras administraciones al ayuntamiento, el cambio de destino de los Cuarteles de Loiola con su consiguiente desafectación.

Miren Azkarate Villar
Portavoz municipal EAJ-PNV

Ernesto Gasco Gonzalo
Portavoz municipal PSE-EE”

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 18 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (2) PP.

ABSTENCIONES: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.

ETA BESTELAKO AZTERGAIRIK EZ DENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO ARRATSALDEKO SEI ETA ERDIETAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK,

Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS SEIS Y MEDIA DE LA TARDE DE LA FECHA EXPRESADA EN EL

AKTA 6
2015EKO URRIAK 27

ACTA 6
27 DE OCTUBRE DE 2015

**IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN
ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN
DUT:**

**ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE
ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL
SECRETARIO, DOY FE:**

LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:

IDAZKARIA: / EL SECRETARIO: